

Gesalazko eta Jaizko izengoitiak

Koldo Colomo Castro





Gesalatz

Lan honen ikerlan eremua Gesalazko Ibarra izan da. Estellerriko ipar ekialdean kokatuta dago eta ondoko herri hauek daude: Argiñano, Arzotz, Bidaurre, Biguria, Estenotz, Garisoain, Genbe, Irurre, Iruxo, Iturgoien, Izurtzu, Lerate, Muetz (udaletxea), Muniain eta Muzki. Bertzalde, Jaitz herria Gesalatzten egon ez arren, XIX. mendera artio haranekoa izan da eta horregatik ikerlan eremuan sartu dugu. Horrez gain, zenbait herri hustu eta desagertuta daude ibarrean, bertzeak bertze, Neusol (Irurren), Opako edo Opakua (Arzotzen), Oro (Jaitzen), Zurbano (Iturgoienen) eta Zurundain (Garisoainen).

Gesalazko euskara

XIX. mendearen bigarren erdialdera artio, Gesalatzten, euskararen transmisioa etenik gabekoa izan zen. Bonaparte printzearen arabera, 1863. urtean, euskara bizirik zegoen ibar osoan. Urte batzuk geroago, baina, euskararen hegoaldeko muga Leraten marraztu zuen Paul Pierre Brocak 1874an, eta lau urte beranduago, Joaquin Ochoa de Olzak galera-muga Ibirikun, Argiñanon, Azantzan eta Munarritzen paratu zuen. Garai hartan 25 urtetik gorako guziek euskaraz hitz egiten zekiten herri horietan. Hortaz, ziurtasun handiz erran daiteke Gesalazko azken euskaldunak XX. mendearen lehenengo hamarkadetan hil zirela.

Euskararen aztarnak anitzak dira Gesalatzten eta zorionez gugana heldu dira euskarazko zenbait izkribu, hain zuzen, 1735. urteko *apezendako dotrina christiana uscaras* eta Muzkiko XVIII. mendeko eliz-testuak. Gainera, XX. mendearen azken laurdenean, landare izenak jaso zituen Irigaraik, toki-izenak Jimeno Juriok eta etxe-izenen multzo esanguratsu bat Isidoro Ursuak (2001). Ondare ez-material horri esker, Aitor Aranak, idazle azpeitiarrak, 1804 euskal hitzak bildu zituen Gesalazko hiztegian, euskarazko (2005) zein gaztelaniazko bertzioan (2012).



Izurtzu.

Izengoitiak: egungo baliabide linguistikoak

Izengoitia baliabide linguistiko unibertsala da eta, historian zehar, pertsonak deitzeko eta bereizteko erabili izan da. Erranahi aldakorra du eta gurasoengandik seme-alababengana heredatzeko joera du. Halaber, hizkuntza-baliabide estetikoa da, pertsonaren gaineko diskurtso sintetikoa edo karikatura linguistikoa bere baitan biltzen du. Egun, modu egokian erabilia, baliabide oparoa eta erakargarria izan daiteke euskararen erregistro informalak aberasteko; izan ere, umorea erabiltzeaz gain, euskal senaren iturritik edateko aukera eskaintzen dio irakurleari.

Ikerlan honetan bildurik dauden izengoiti asko eta asko etxe-izenetatik datoz, eta hitzen formari erreparatuz gero, etxeari erreferentzia egiten dioten ondoko atzizkiak topatzen ditugu oikonimo askotan: *-(r)ena* (Ezquerrarena...), *-(r)enekoa* (Mariabelzanecoa...) eta *-ko(a)* (Aitonecoa...). Hala ere, Gesalazko etxe-izen tradizional guzkiek ez

daramate atzizkirik (Martinchiqui...). Bertze izengoiti batzuk, ordea, pertsona izengoitiak dira.

Batekoa nahiz bertzekoa izanda ere, bilduriko izengoiti guziak ongi dokumentaturik daude eta, gainera, bildutako hitz guziak argiak dira, alegia, ez dute dudarik sortzen. Hori bai, gogoan izan behar dugu izengoitien erranahia ez dela beti pentsa litekeena; batzuetan, pentsa dezakegunaren kontrakoa adieraz dezaketeelako. Horregatik, gure interpretazioak orientazio gisa hartu beharko ditu irakurleak. Azkenik, bertze garai bateko jendartea eta ekonomia ezagutzeko baliagarriak dira izengoitiak, finean, Gesalazko euskaldunen mundu-ikuskera tradizionalera hurbil gaitzke haiei esker.

Izengoiti kolektiboak

Gesalazten zenbait izengoiti kolektibo jaso ditugu: muezkoak **Txantxoteak** dira (tx-, Santxo izenaren hipokoristikoa), iruxokoak **Motxorroak** (moxorro, -x hipokoristikoa, ziur aski) eta iturgoingoak **Altxirukiak**, Zuberoako mendebaldeko Altzürükü herritik Iturgoienara zetozen teilagineei erreferentzia eginez, Pedro Argandoñaren arabera (2005).

Jaizeko gatz larrainak (argazkia: Patxi Txokarro).



Arlo fisikoa

Pertsonaren itxurari erreparatzen dioten izengoiti ugari ditugu zerrendan, Nafarroako bertze toki batzuetan ohikoa izaten den bezala. Azalaren edo biloaren kolorea azpimarratzen da **Beltxa** (-tx- hipokoristikoa, *Belcharena*, Arzotz XVIII eta Estenotz 1768), **Maribeltz** (*Maribelz*, Jaitz 1770, *Mariabelzanecoa*, Jaitz 1788), azalaren kolorea, edo beharbada sorgina, **Buruzuria** (*Buruzurinecoa*, Muetz, 1575, 1824), ile zuria duena, eta **Gorri** (*Gorriarena*, Irurre, 1791), bilo edo azal gorrikoa, izengoitietan.

Tamaina bertze arrazoi bat izan da goitizena sortzeko, eta **Handia** (Joan Fernandez de Muniain «*Andia*», Genbe 1567), **Txipi** (*Martinchipi*, Jaitz 1635), **Txipiko** (-ko txikigarria, *Chipiconecoa*, Izurtzu 1739, 1820) eta **Txipito** (-to txikigarria, Joanes de Arza «*Chipito*», Estenotz 1652) ditugu zerrendan. Erranahi horretatik haratago, handia eta txikia izenondoak etxeko izenkideak bereizteko erabili izan dira, eta hala dirudi gertatu dela **Juanizandia** (*Juanizandiarena* 1735, *Juanizandiarena* 1736, *Juanisandiarena* 1757, *Jaunesandia* 1827, Muetz), **Martinandi** (*Martinandicoa*, Muetz 1735) eta **Martintxiki** (*Martinchiqui*, -etxea- Biguria 1731, *Martinchiqui* Biguria XVIII; *Martinchiqui*, Jaitz 1770, *Martichiquinecoa*, Jaitz 1788) etxe-izenetan, aipaturiko kasuren batean gorputzaren tamaniari erreferentzia egin liezaiokeela baztertu gabe.

Gorputza edo haren atalaren bat ikusgarria, esanguratsua edo tamaina handikoa izatea aitzaki nahikoa izan da izengoitia paratzeko: **Bizar** (*Vizarrenecoa*, Muniain 1825-30), **Bizarrandi** (bizar handia, ia > ie asimilazioa, *Vicerrandi*, Irurre 1791), **Begitxiki** (*Beguichiquirena*, Arzotz, XVIII), **Zabal** (*Juanzabalenecoa*, Jaitz 1790) edo **Zabalko** (zabal + ko txikigarria, Juan de Arça, *Çabalco* goitizena, Jaitz 1655) eta **Mutilon** (mutil + on handigarria kasu honetan, *Anso mutilon* goitizena, Jaitz 1531, *Sancho mutilon*, Jaitz 1635), mutil handia edo osatua dena.

Adina ere bereizgarria izan da eta baditugu **Zaharra** (*Peruto Çarra*, Muniain 1552; *Juancharrena* Bidaurre 1641) eta **Juanzar** (*Juanzar* -etxea- Biguria XVIII, *Zahar > Zar > Txar*, *Juancharranecoa*, Genbe 1825, *Charranecoa*, Genbe 1825).

Gorputzaren lateralitatea, esanguratsua izan da tradizioan. Horren adibide argiak **Ezkerra** (*Ezquernarena* Irurre 1791, *Ezquerrarena* Irurre

1791) edo **Xurdo** (*Surdo*, x- adierazkorra, Jaitz 1770) ditugu, azkena erdaratik ekarria. Horrez gain, **Axkarra** (-x- adierazkorra, *Ascarrarena*, Bidaurre 1825) dugu, indartsua, sendoa eta adimen handikoa edo astigarra, beharbada. Gorputzari dagozkion izengoitien zerrenda amaitzeko **Txirtxor** (*Chirchor*, z > tx, tz > tx adierazkorrak eta asimilazioa, *Zintzur* > *Txintzur* > *Txirtxor*, Izurtzu 1820) hitz berezia dugu, ziur aski, zintzur hitzetik datorkigun hitz adierazkorra.

Ogibideak

Dudarik gabe, ogibideak pertsonen egoera sozioekonomikoaren berri emateaz gain, baliabide apartak izan dira herritarrak izendatzeko, batez ere, bigarren eta hirugarren sektorekoak, euren lanbideen eskasia edo berezitasunagatik.

Lehenengo sektorean izengoiti bakarra kausitu dugu: **Behizaia** (*Beizaianeco*, Izurtzu 1739), behiak zaintzen dituen.

Bigarren sektorean, **Arotza** (*Arozarena*, Arzotz, XVIII; Muetz 1735; Muzki 1782; Irurre 1791 / *Arozaneco*, Jaitz 1788 / *Goiticoarozana*, Argiñano 1820-32) dugu, burdina lantzen duena, **Zurgin** (*Zurguiñeneco*, Argiñano 1820-33), **Zurginko** (Zurgin + ko txiki-garria, *Zurgincorena* Arzotz XVIII) eta **Xurgin** (X- hipokoristikoa, *Surguineneco*, 1788 Jaitz) zura lantzen duena, eta **Kisusgile** (*Kisugile*, *Quisusguilleneco*, Jaitz 1789) igeltseroa, Nafarroan eta Iparraldean dokumentatuta. Elikadura arloan **Aguardientegilea** (*Aguardientegillearena*, Bidaurre 1825) dugu, mahatsen hondarretatik alkohola egiten duena, eta zenbait dira jantzigintza arloan ditugun artisauak, hain zuzen, **Zamargin(a)** (*Zamarguiñeneco*, Genbe 1825; *Zamarguirena*, Irurre 1791), zamarrak egiten dituen, **Ehuntzele** (Ehule, *Eucele-neco*, Jaitz 1788), **Ehuntzele gaztea** (*Euncelegastearena*, Bidaurre 1641), ehunak ehuntzen dituen, **Sastre(a)** (*Sastreneco*, Muniain 1825-1839, *Sastreaneco*, Jaitz 1788, *Sastresui* (*sastre* + *sui*?), Arzotz XVIII, *Sastrearena*, Irurre 1791, *Satriarena* Muzki 1782) edo **Txastre** (Xastre, x- hipokoristikoa, *Chastrezarraneco*, Genbe 1824) eta, azkenik, **Zapatain** (Zapataria, *Zapatenena*, Muzki 1782; *Zapatiñena*, Arzotz XVIII; *Zapetañena*, Irurre 1791).



Garisoain (argazkia: Patxi Txokarro).

Hirugarren sektoreari dagokionez, alegia, zerbitzuen sektorea, eliz-gizonak ditugu: **Apeza** (*Beiticoapezarena*, Muetz 1757, 1824), **Apez zaharra** (*Apezarrena*, Irurre 1791; *Apezarrenecoa*, Izurtzu 1739; Muniain 1825-30), **Bikario zaharra** (*Vicariozarrena*, Muniain 1825-38), apez baten ordekoa edo laguntzaile nagusia, **Kapellan** (Kapilau, *Capellanecoa*, Estenotz 1768), kapilautza baten jabe den apaiza eta **Sakristan** (*Sacristanena*, Muniain 1825-35; *Sacristarena*, Estenotz 1768; *Sacristorena*, Arzotz XVIII), alegia, apezaren laguntzailea. Gobernuko funtzionarioen artean **Merio** (*Meriorena Erdikoa*, Estenotz 1768), herrizaina edo epaile lanak egiten dituen, eta **Soldado** (*Soldado*, Izurtzu 1820), aginteak betearazten dituen.



Osasungintzan, **Barberoa** (Barberua, *Barberoarena*, Irurre 1791) dugu, odol-ateratzeak eta ebakuntzak egiten zituena, eta **Albeitar** (albeitaria, a+a > a+e asimiliazioa, *Albeitarena*, Arzotz XVIII), animalien sendagilea. Azkenik, herri musikagintzan **Gaitero** (*Gaitero*, Jaitz 1770) dugu.

Nolakotasuna

Izaerari erreparatuz gero, **Makur** (*Macurrenecoa*, Jaitz 1788), zitala edo maltzurra dena edo fisikoki oker dagoena eta **Gaitz** (*Gaicecoa*, Bidaurre 1641) topatu ditugu, azkena gaizkia, eritasuna, kaltea edo mina sortzen duena. Horrez gain, **Katedratiko** (*Catedraticorena*, Argiñano 1820-31) dugu, jakintsua edo sasijakintsua edo pilotalekuan gorantz apostua egiten duena Jose Maria Iribarrenen hiztegiaren arabera, **Famoso** (*Famosorena*, Irurre 1791), sona handikoa bere inguruan, eta **Santo** (*Santonecoa*, Muniain 1825-1834), beharbada, uste bezain ona ez dena.

Jentilizioa eta ahaidetasuna

Izengoitien bidez, jakin dezakegu nondik datozen jabeak, non dituzten sorterriak, alegia. Gertuko herrietatik datoz **Girgilantxo** (*Guirguillanchonecoa*, -txo txikigarria, Estenotz 1769) eta **Itzurtxu** (Izurtzu ziurrenik, hipokoristikoa, *Ichursu*, Genbe XVIII). Urrunxeagotik etorriak dira **Ultrama** (*Ulchama*, z > tx adierazkorra, Jaitz 1770) eta **Garraldiko** (Garralda + -iko txikigarria, *Garraldicorena*, Arzotz XVIII). Kanpotik, berriz, etorriak dira **Arrotza** (*Arrozarena*, Bidaurre 1820) eta **Indiano** (*Indianorena*, Bidaurre 1820), Ameriketara joan eta baliteke aberastua itzultzea.

Ahaidetasuna presente dago izengoitietan, hain zuzen, **Aita** (aita + -ko txikigarria, *Aitaco*, Muniain 1770) eta **Aitona** (*Aitonecoa*, Muniain 1825-31), eta zenbaitetan estatus soziala, **Ezkonberri** (*Ezcomberri*, Irurre 1791), **Etxeko Jauna** (Juanto «*Echeco Jauna*» goitizenez, Muniain 1552), **Bezino** (*Vecinorena*, Irurre 1791), etxe jabea dena, eta **Konde** (*Condeneco*, Bidaurre 1825).



Muzki.

Animaliak eta landareak

Naturararekin lotura estua zuten bertze garai bateko gesalaztarrek. Horren isla argia izengoitietan ere topatzen dugu. Nafarroan XIX. mendera artio presente egon den animalia agertzen zaigu: **Otxoko** (otso + -ko txikigarria, -tx- hipokoristikoa, *Ochocorena*, Argiñano 1820-1830), berez otsokumea da, baina kasu honetan, ziur aski, pertsona-izen batetik datorren izengoitia dateke, eta **Kapon** (*Capone-na*, Arzotz XVIII), oilar osatua Nafarroa Garaian. Landareen artean **Perrexil** (*Perrexil*, Arzotz XVIII) aurkitu dugu, beharbada, saltsa guzietako bizigarri bikaina.

Elikagaiak, jantziak, tresnak

Bizirik irauteko behar beharrezkoa dugu janaria. Herritar gehienek ogi beltza jaten zuten sosa eskasa dela eta, baina dirudienez baten batek ez: **Ogi txuri** (Ogi+ zuri, z > tx hipokoristikoa, *Oguichuri* edo *Quichuri*, Muetz 1824). Jantzien artean **Txaleko** (*Chaleconecoa*, Izurtzu 1820) eta **Txamarro** (zamar + o, tx- hipokoristikoa, *Cha-*

marrorena, Muez 1737) ditugu, azken hori zamarra edo pertsona basatia da. Etxeko tresneria presente dago izengoitietan eta **Kandil** (*Candillenecoa*, Muniain 1825-30), argia egiteko tresna edo kandila bezain okertua dena, **Kutxillo** (*Cuchillonecoa* Jaitz 1788) eta **Ezkil** (e+i < i+i asimilazioa, *Izkila*, *Esquillenecoa* Izurtzu 1820) jaso ditugu, ardiari lepoan jartzen zaiona non dagoen jakiteko.

Eraikinak

Izengoitien zerrendaren amaierara heldu gara eta funtzionalitate anitzeko zenbait eraikin aipatu behar ditugu, hain zuzen, **Abeltxe** (abeltxe + ko lekuzko genitiboa, *Abeltxeco* Jaitz 1770), animaliak gordetzen diren toki babestua, **Errota** (Errota + ko(a) lekuzko genitiboa, *Errotacoa*, Jaitz 1788), irina egiteko industria, eta **Dorrekoa** (Dorre + ko(a) lekuzko genitiboa, *Miguel de Zabalza «Dorrecoa»*, Jaitz 1788), Erdi Aroko defensa-eraikuntza.

Iturriak eta bibliografia

- ☞ ÁLVAREZ, Esther; ORDUNA, Pablo, ÁLVAREZ, Pablo, Antropología estructural en el territorio de Guesálaz (Navarra). Espacio y constituciones populares, *Sancho el Sabio*, 35, (2012), pp. 11-45.
- ☞ ARANA, Aitor, *Hegoaldeko goi-nafarrera. Gesalazko aldaera hiztegia*, Hiria, 2005.
- ☞ ARANA, Aitor, *Diccionario castellano-vasco de Guesalaz*, Altaffaylla, 2012.
- ☞ ARGANDOÑA, Pedro, Los «Altzirukis» de Iturgoyen (Navarra), *Kobie. Antropología cultural*, 11, 2004-2005, pp. 221-224.
- ☞ COLOMO, Koldo, *Izengoitiegia. Izarbe eta Mañeru ibarretako euskal izengoitiak*, Iruñea, Pamiela, 2021.
- ☞ COLOMO, Koldo, Oteitzako euskal izengoitiak, *Kotarro*, 58, 2022ko martxoa, pp. 4-6.
- ☞ COLOMO, Koldo, Orbaibarko euskal izengoitiak, *Etnolan*, 4.7., 2022 b, pp. 92-109.
- ☞ MAIORA, Fernando, *Reino de Navarra. Apodos*, Artaxoa, 2010.
- ☞ MAIORA, Fernando, *Léxico autóctono histórico de Navarra II*, Artaxoa, 2017, p. 85.
- ☞ MAIORA, Fernando, *Reino de Navarra. El nativo vascongado*, Artaxoa, 2020, pp. 97-98.
- ☞ URSUA, Isidoro, *Guesalaz pueblo a pueblo*, Iruñea 2001.